ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

1428/2017 EBAZPENA, azaroaren 14koa, Araba ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Maria Emma Muro Ruiz de Osma Araba ESIko Hemodinamika gainbegirale izendatu da, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako ESIn.

Arabako ESIko zuzendari gerentea denaren 2017ko irailaren 26ko 1206/2017 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Hemodinamika gainbegirale lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta María Emma Muro Ruiz de Osma andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Hemodinamika gainbegirale, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba ESIn.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT

Lehena.- María Emma Muro Ruiz de Osma andrea Hemodinamika gainbegirale izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Araba ESIn.

Bigarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2017ko azaroaren 14an.

Hirugarrena.-Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez.

ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

RESOLUCIÓN 1428/2017, de 14 de noviembre, del Director Gerente de la Organización Sanitaria Integrada Araba, por la que se nombra, mediante libre designación, a Dª María Emma Muro Ruiz de Osma, Supervisora de Hemodinámica, en la Organización Sanitaria Integrada Araba de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1206/2017 de 26 de septiembre de 2017, del Director Gerente de la OSI Araba, se convoca la provisión, mediante el sistema de libre designación, de un puesto de Supervisora de Hemodinámica, de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la valoración de la solicitud presentada así como la correspondiente propuesta de nombramiento y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en Dª María Emma Muro Ruiz de Osma, procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación, como Supervisora de Hemodinámica, de la Organización Sanitaria Integrada Araba de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

RESUELVO

Primero.- Nombrar a Dª María Emma Muro Ruiz de Osma Supervisora de Hemodinámica de la Organización Sanitaria Integrada Araba de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos el 14 de noviembre de 2017.

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento.

Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución al interesado.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

**Vitoria-Gasteizen, 2017ko azaroaren 13ean**
En Vitoria-Gasteiz, a 13 de noviembre de 2017

Osakidetza ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA
KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

**Izpta./Fdo.: ZUZENDARI GERENTEA/DIRECTOR GERENTE**
**JESUS LARRAÑAGA GARITANO**